



Langai

1988ko ABENDUA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB 3

Baskongadetako Funtzio Publikoaren Lege - proiektua dela eta

Zbkia

TXT 10004

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



**Baskongadetako
Funtzio
Publikoaren
Lege - proiektua
dela eta**

L.A.B., FUNTZIO PUBLIKO BASKONGADOAREN LEGE PROIEKTUAREN AURREAN

- I.- ADMINISTRAZIOA, GIZARTE ALDAKETAREN SUBJEKTU ETA OBJEKTU BEZALA.
- II.- FUNTZIONALGOA HEGO EUSKADIKO HISTORIAN.
- III.- BOTEREAREN KONTROL MEKANISMOAK ADMINISTRAZIOAN. KARGU ALTUAK. KONFIDANTZAKO POSTUAK. AHOLKULARIAK.
- IV.- FUNTZIONAL ETA LAN ERREGIMENAREN ARTEKO EZBERDINTASUNAK.
- V.- ALTERNATIBA OROKORRA. L.A.B.
- VI.- ESKUBIDE SINDIKALAK ETA NEGOZIAZIO-ESKUBIDEAK.
- VII.- SARBIDE SISTEMAK ETA PERTSONAL HAUTAPENA.
- VIII.- ORDAIN KONTZEPTUAK.
- IX.- FUNTZIONARIEN DISZIPLINA ERREGIMENA.
- X.- ASEGURU SOZIALA ETA FUNTZIONARIEN MUTUALITATEAK.
- XI.- EUSKARA ADMINISTRAZIOAN.

I.- ADMINISTRAZIOA, GIZARTE ALDAKETAREN SUBJEKTU ETA OBJEKU BEZALA

Lantxo honetan zera planteatu nahi dugu: batez ere, Hego euskal funtzio publikoaren erregulazioa bezalako gai zabalaren aurrean, LABen jarrera zein izan beharko lukeen ondo aztertzeko izugarritzko garrantzia duen arazo mordo bat. Eta arazo mordo hau planteatu nahi dugu erizpide moduan erabiltzeko laster egiteko garen debate sakon eta zehatz horretan.

Zentzu honetan, -baina inola ere ez Hego Euskal Herriko produkzio sektorean egiten diren planteamenduen kopia mimetikoa eginik, baizik eta beste desberdin bat- hasi behar dugu gure azterketa honako abiapuntu hauek kontutan izanik: Administrazioak, utziz alde batera boterea nork duen edo ez duen, zerbitzu publiko batzuen gestioa eramaten duen erakunde neutrala izateari aspaldi utzi ziola; eta gizarteak bere baitan sortzen diren neurri handietako arazo konplexuei adarretatik eusteko tresnatzat aukeratu duena, edozein aldaketa sozialen egiazko tresna eta egile bihurtu zaigula, zeren bere iharduerak eragin zuzena bait du enplegu betean, bizimoduaren baldintzen hobakuntzan, zein lurralde plangintzan e.a. askotan.

Eta gaurregun jasaten ari garen Erreformaren bornu juridikoan funtzio publikoa nola arautuko genukeen arazoari alternatiba bat eskaintzea gure asmoa ez izanik ere, bada, ostera, egia bornu juridiko desberdin batetan aplikatu beharreko oinarriak planteatzeko garaia, iritsi zaigula.

Eta, beraz, hainbat alor desberdin direnez, horren haina azterketa berezi aterako bait zaigu, alor bakoitzari berea; zeren, gaurregungo abagadune politikoa ardaztat hartuko bagenu, kritika gogorra egin beharko bait genioke konfidantzako postuak, kargu altuak zein aholkulariak izateari berari; nolana ere, gaurregungoa ez den beste bornu politiko baten ikuspuntutik abiatuz, sakon aztertu beharko genuke arazo hau. Aztertu beharko genuke, baita ere, funtzionariak ala lan kontratatuak, zeintzuk indartu; eta aukera bata edo bestea egiteak dituen abantaila eta oztopoak.

Orainarte esandakoari jarrai, administrazioaren Zerbitzuan dauden langileen jarrerak zehazpen guztiz konkretuak ditu, zeren, alde batetik, langile direlako eskatu behar bait dituzte soldata igoerak, lan-baldintzen hobakuntzak zein beren eskubideen onespina eta garapena; eta, bestalde, eskakizun hauek zuzenean bait dakarzkio eragina gizarteari, zerga gehiago ezarri beharra dakarrelako edo / eta kasu batzutan, begi bistan dauden arazo sozialei erantzuteko gaitasuna Administrazioari berari urritzen diotelako.

Sorturiko interesak, azken finean, elkarren kontrakoak dira; baina hala ere, bateratu egin behar dira, nahiz eta horretarako derrigorrezko izan gaurregungotik desberdina den harreman bornu berri bat.

Lan harreman hauen berezitasunak sortzen duen beste arazo bat zera da: egiten den lanaren ebaluaketa, alegia; zeren kontutan izan behar bait dugu administrazioak ez duela produkzion egiten; kasurik onenean ere zerbitzu prestazioak baino ez dituela eskaintzen.

Azkenez, aipatu, behintzat, egin behar dugu, gure inguruetako zein urutiagoko herriek politika eta Administrazio bilakaera desberdina izan duten arren, hala ere Administrazio-egiturak, sarbide sistemak, ordainketak, e.a. antz handikoak direla guztietan; eta, beraz, gure analisiak aberazteko balio duten esperientzia berrizaleak hautatzeko aukerarik ez dagoela.

Merezi du aipatzea, baita ere, herri batzutan saioak egon, egon direla, Administrazio publikoko funtzionarien eta enplegatu edo langileen arteko desberdintasunak kentzeko asmoaz eginak (jakin

enplegatu edo langileak direla gehiengoa —ez funtzionariak— enpresa publikoei, lan teknifikazioari eta programa sozial iragankorrei esker batez ere); baina berdintasuna lortzera bideraturiko saioak ez direla aurrera atera. Gehien ere, herririk "aurrelarienetan" egin ahal izan dira erreformaren batzuk, esaterako, erabaki da sail bakoitza zein lanpostu-motaren jabe den, ze jakintza mota den beharrezko sail bakoitzean: administrari orokorrarena ala teknikari espezialduena, e.a. (Holakoak edo antzekoak izan dira Alemaniako erreformak; Fulton txostenaren eragina Britainia Handiko Administrazioan ere antzekoa izan da; aurrerapen ttiki batzuk Hego Amerikako herrietan, e.a.)

Hala eta guztiz ere, herririk gehienetan dagoen joera nagusia zerbitzu publikoen gestioa enpresa pribatuen bidez bideratzea denez edo publikoen bidez, baina administrazioa bera ez den enpresa publikoen bidez, hain zuzen ere, ezin dezakegu ez ezagut lan Zuzenbideko printzipioek funtzionarien Zuzenbidean duten eragina (adibidez, greba eskubidea herri batzutan, elkarte askatasuna, ordezkartasuna eta nogoziazioa, e.a.)

Zuzenbide konparatuan aurrerapen gutti egin den arren, egoki da aipatzea Herri batzutan hiritarrek gero eta parte gehiago hartzen dutela Administrazioaren erabakietan, ukituei eritzia eskatzen zaielako, erabakia hartzeko egon diren arrazoiak argi azaltzen direlako,... (Hor dago Suediako adibidea. Hemen programa politikoen laborazio hastapenak herriari ikerketa batzordeen bidez eritzia eskatu ondoren egiten dira, hauek egindako txostenak arduradun politikoarentzat lotgarri izanik; edo hor dago Alemaniako adibidea ere, non herri, eskualde zein herrialde batzordeek administrazio prozeduren erabakietan konpetentzia bait duten.

Guk, bada, erabakiak hartzeko orduan Administrazioaren morroi ez diren langile-erakunde-partehartzaileen sorketa bultzatu beharra dugu, zeren hau, hala Administrazioan lan egiten duten teknikarientzat nola hauen erabakiekin bat etorri diren hiritarrentzat mesede izugarria izango bait litzateke.

II.— FUNTZIONALGOA HEGO EUSKADIKO HISTORIAN

SARRERA

XIX. mendeko hastapenetan hasi ziren Estatuak modu berezian arautzen beren langileekiko harremanak. Bereztasun honek zentzua zuen, zeren langile hauen lana Estatuaren erakundeek ordezkaturako gizartearen zerbitzuan zegoen eta ez interes pribatuen zerbitzuan.

Hasera batetan bereztasun hau zerera mugatzen zen: Ordenu eta Seguritatearekin zer ikusia zuen lanera soilik, baina XIX. mendeko bigarren erdian eman zen Industrigintzak eta gizarte aldaketak emango diete Estatuari sarea zerbitzu berrietara hedatzeko aukera, hala nola, sanitate, irakaskuntza, Administrazioa orokorrean,...

Administrazio neutro eta boteretik urrunduaren aurrez aur, Boterea, errealitateak argi adierazten digunez, beti saiatu izan da Administrazioa, hau da, bertako langileak izan daitezene bere boterearen gestore; baina beti, segurtatuz guttienik, ongi betetzen dutela Estatuaren baloreen bermatzaile ideologikoaren papera.

Balore ideologiko hauek inperialista eta genozida bihurtzen dira tartean Estatuak sartzen denean, Estaturik gabeko, baina Estatu izateko borondate finkoa duten nazioak kontrolatu eta menperatzeko interes argiarekin. Nazio zapalkuntz arazoa.

Nazio-hizkuntza zapalduaren alorra, esaterako, ez bakarrik egiten da, baztertu; baizik eta abagadunea dagoen bakoitzean konszienteki eta plangintza berezia eginez burrukatzen da kontra. Nazio-hizkuntza zapalduari ez zaio uzten lehiaketarako posibilitaterik tikiarik ere, Estatu zapaltzail-eak, zentralismoan oinarrituz, arautzen bait du Administrazioa, eta honela bermatzen Estatuaren ideologiaren presentzia, funtzionalgoaren integrazioaz baliatuz edo, guttienez funtzionalgoa neutralizatzea lortuz.

Hona hemen zergatik herri zapalduak holako abagaduneetan funtzionalgoari izaten dioten gorrotoa, jakitun zein izan gabe, berau izaten delako zapalkuntza nazional eta sozialaren habe bat eta, gainera, botere faktikoez diseinatu duten eskema erpresiboan funtsezko papera duen jokalaria.

a).- LA DEFENSA DE UN FUNCIONARIADO PROPIO

1.876.etik honantza –foru galera– Botere Zentralaren eta Euskal Erakundearen arteko burruka ikusiko dugu. Ade batetik, Botere Zentralea Estatu osoko funtzional erregimena arau uniformeekin homologatzeko asmo sendoarekin eta, bestetik, Euskal Erakundeak zapalkuntza berdinarazlearen kontra gogor eusten eta salbuespen erregulazioaren kontraproposamena lortu nahiean.

Tirabira hasi berri dela, Diputazioek lortu zuten salbuespeneko egoera funtzionalgoaren hautapen eta izendapenari dagozkion alorretan (idazkari, notari, sendagile, maisu-maistra, ...); baina Primo de Rivera-ren diktadurak behin betiko etengaldira emango dio ordurarteko egoerari.

Administrazio Zentralean, Irakaskuntzan e.a.-etan Zentralismoak inposatu zuen "Gorputz Nazionalaren" ordenamendua tiki gelditu zen hemengo funtzionalgoaren aurrean; baina hala ere, Jauntxokeriaren eta ustelkeriaren kontrako burruka atxakiatzat jarriz, ilunpean geraraztea lortu zuten funtzionalgoak izan zuen kontrol zentralista ezartzeko interesa.

Ezin dezakegu aipatu gabe utz, Nafarroako erakundeak, ordurarte beste euskal herrialdeek izan zituzten bezalako arazoekin egin bazuten topo ere, orduantxe hasi zirela faborezko tratua hartzen eta, beraz, helburu zehatz bakar batekin uzten zaie eskubide gehiagoren jabe izaten. Estatu Zentralista kili-kolo jartzen duen Nazio kontzientzia hori deseusteko helburu finkoarekin, alegia.

36.eko Estatutuak ez dio aurreko egoerari ezer gehitzen, alde batetik ez konstituzio Errepublikarrak, ez Estatutuak, ez dutelako gaia sakon ukitzen eta, bestetik, gerran egoteak ez duelako errazten ezein Administrazioaren finkapenik.

Denboraldi honetan euskarak funtzio publikoaren baitan jokatu zuen paperaren bilakaera, honelakoa izan zen; hasieran, erabateko eta parkaziorik gabeko exigentzia egon zen, euskara ikasteko epea aldaezin jartzerainokoa; baina, hurrengo pausua alegia, hau izan zen: lehenengoko eskakizun edo exigentzia hura euskal lurraldeetara mugatu zela eta hirugarrenez –eta azkenez– aurreko eskakizuna aholkua, besterik gabe, bihurtu zela. Funtsezko aldaketa honen estalgarritzat "eskubide lortuak"-en formula esanguratsua zikindu eta erabiliko dute. Eboluzio atzerakor honen bultzatzailearik nagusienetarikoa orduko funtzionalgoa bera izan zen.

b).- FRANKISMOA

Frankismoa da Zentralismo eta Inperialismo espainiarraren agerkeriazko gordinena. Hona nola Nafarroa idazkari, sendagile eta maisu-maistren izendapenari buruzko eskubideekin utziko du Araban guttienera murriztuko dizkio foru kompetentziak eta "probintzia errebeldeak" Bizkaia eta Gipuzkoako

lurraldeak, alegia, erregimen komunarekin zigortuko ditu.

Funtzionalgoaren garbiketa masibo baten aurrean gaude, bi arrazoi nagusi direla kausa: gorria izatearren bata, eta bestea, separatista izatearren (edo bi adarrok dituen deabrua izatearren). Ordez pentsamolde inperialista argia duen funtzionalgoa jarriko dute hutsak betetzen.

Gure herriak aldi honetan hartuko duen itxura hauxe izan zen: bata, bertoko funtzionarien hutsunea nabari-nabaria izan zela Administrazio alor desberdinetan batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan eta berdina, nahiz eta zerbait guttiago, Araba eta Nafarroan; eta bi, Euskal Herriak ez daukala Unibertsitate, Magisteritza salbu. 40 urte hauetan zehar, Frankismoa nazio identitatearen eta Administrazio autonomiaren aztemarik tikieneraino deuseztatzen saiatuko da, Nafarroan salbu non eskubideak mantendu egiten diren baina pribilegio moduan. Eta guzti hau emanarren, nazio kontzientzia komunaren garapena eginaz doa.

c).- ERREFORMA

1978.eko konstituzioa, 1979.eko Estatutu Baskongadoa eta 1982.eko Nafarroako Amejoramentu forala dira Erreformako partiduek berenganatzen duten bornu politikoa.

Bornu honetako bi puntu dira azpimarragarri:

* Funtzionalgoaren lan baldintzak langileenekin parekatzearen aldeko sektore aurrelarien erreibindikazioei uko eginik, konstituzioa funtzional- eta estatut-bidearen alde posizionatu zen; kontradikzio askoko aukera benetan zeren funtzionalgoaren sindikazio-eskubidea haintzat hartzeak barnean bait darama talde negoziazio eskubidea eta presio neurriak erabiltzekoa ere.

* Konstituzioaren garapenak zeharo mugatzen ditu Baskongadak eta Nafarroak (Hego Euskal Herriak, alegia) dituzten kompetentzi mailak (149.1.8.art.). Garapen honek, izaera guztiz arautegista bait du, bertoko funtzionalgoa gehitzea ezina bihurtzen du (aurreikustekoa zen gauza, bestalde; ikusi, bestela, Funtzio publikoaren erreformaren neurri legea, 84/30) gestiora mugatu dituelako ematen dituen kompetentziak. 84/30 legeak, hau da, Erreforma neurrien legeak, zer guzti hau aldarrikatzen du funtzionari publikoen estatut-erregimenaren oinarritzat eta Administrazio guztiei aplikarritzat, salbuespenik gabe: Pertsonalaren beharrezkoen programaketa koordinatzeko erizpideen onarpenari dagokion guztia eta enplegu publikoaren eskaintzarako erizpideak (hauek Gobernu Zentralari dagozkio), Funtzio Publikoaren Kontseilu Nagusiaren konposaketa, Pertsonalaren erregistroak, nominen zehaztapena Elkarte Autonomoetako presupostu legeetan, funtzionarien higikortasuna, pertsonalaren hautapena, lanpostuen horniketa, bultzapena eta ordainketa konzeptuak, lanpostu taldeak eta beraien sailkapena, funtzionarien egoerak, ... hau da, 84/30 lege honen erabaki ia guztiak dira praktikan derrigorrez betebeharrekoak eta, beraz, Elkarte Autonomoei ez die uzten maniobrarako arrakalarik tikienera ere.

Horrexegatik, bada, Udaletako idazkari, maisu-maistra, e.a.-en postuen horniketa sistemak sorturiko gatazkak.

Baskongadetako egoera oraindino okerragoa da, zeren, Funtzio Publiko Baskongadoaren legerik ez dagoenez, Administrazio egituren beraien erregulazioan zein Administrazio eta bere langilegoaren arteko harreman motetan aniztasun izugarria bait dago, guzti honen ondorio delarik diferentzia larri eta sakonak egotea lan baldintzetan eta paguetan (esaterako: Gobernu, Diputazio eta Udaletako egoeretan). Eta guzti hau koordinatu eta homologatu beharra dago, zer esanik ere ez

Behar da, bada, aprobatu Administrazio guztietan dauden baliabideak arrazionalduko dituen legea, merezimendu eta gaitasun printzipioekin ados dauden sarbide sistemak arautuko dituen, langilegoari parte hartzeko bideak ematen dizkiona (Ikus. Funtzio publikoaren Euskal kontseilua. Funtzioak eta konposaketa).

Konstituzioak sortu dituen 17 elkarte Autonomoen artean Funtzio Publikoaren lege proiektua Parlamentuan presentatu ez duen bakarria Baskongadak izateak esan-nahi politikoa duela ez dago dudarik. Lege estatalaren kortseari ihes egiteko saioek eta hetxoek bidetik abiatzeko entseieuk sortu dute behin baino gehiagotan konstituzio tribunalean bukatu den politika mota. Orain koalizio gobernu-arekin posibilitateak guttiti egin dira eta 60 mila langilek baino gehiagok erreferentzi bormurik ez izatea benetako erloju bonba da.

Ez dago amore ematea baino. EAJ, Lehendakartzaren bidez zirriborro berriak aurkezteko egiten ari den entseiuak, 84/30 legea eta bere garapena kalkatzera deiturik daude.

Garden dagoena zera da: alde batera utziz EAJ saiatu dela aipatu enfrontamentuok Autogobernu kota altuago baten eskakizun bezala eritzi publikoaren aurrean aurkezten, Funtzio Publikoaren arautegi zehatz horren faltak bere zerbitzurako pertsonalaren hautapenean edonolako erizpideak erabiltzeko aukera eman diola, bere ideologi lineatik hurbil dagoen pertsonal gehiengoz osaturiko taldeak kontrolatzeko orduan eta, baita, lanpostuetan egongaitasun izugarria sortuz - arduradun politikoen inkompetentziaren eruz, gehien bat.- beraien linea politikoko ez diren taldeei hitzarmenak ez berrizatzeko aukera ere ematen zaielarik.

Ikusi dugu nolakoa izan zen paktoaren aurreko egoera; hala ere irregulartasun kontuan PSOEK ez du atzean geratu nahi izan eta oso ondo imitatu du aurreko jokamoldea, nahiz eta erritmo azkarrago batetan egin; eta paktogileek "batzokitarrak" eta "herriko etxetarrak" irudi daitekeen haurpegirik haundienaz banatu dituzte postuak, bien artean bakoitza erdi banaren jabe eginik.

Horrexegatik gogorarazi beharra dugu paktoaren ostean gehitu egin direla "kargu politiko" delako pertsonal mota eta Gobernu Baskongadoko sail desberdinen aholkulariak, nahiz eta hauen existentzia ez den agertzen inon, Komunitateko presupostuetako 1. kapituluan bertan ere ez.

III.- BOTEREAREN KONTROL MEKANISMOAK ADMINISTRAZIOAN.

Abagadunearen analisisian aipatzen genuen moduan Funtzionarien betebeharrak erreala, Boterearen gestioaren euskarri praktikoa izatea da eta gauzak berak nahi duen moduan erabiltzeko hau gutti balitz edo, administrazioak beste eustaba gehigarri batzuk ditu aldiko "arduradun politikoez" gain; esaterako, bere konfidantzako postuak aukeratzeko ahalbidea (idazkarisak, aholkulariak gero eta gehiago, e.a.) eta postu batzuk izendapen libre sistemaren bidez betetzeko modua, nahiz eta legeak alferrik baino ez bada ere agintzen duen guzti hauek zerrendaturik egotea lanpostu erroldatan: baina ezagutuz nola egiten dituzten, alferreko agindua izatea lortu dute.

Uztailaren 28-ko 1988/23 legeak, zeinek Erreforma neurrien 84/30 legea aspektu batzutan aldatzen duen eta aipatu horniketa sistema hura mugatzeko ageriko helburuaz egin den, hau erabakitzen du: Estatuko administrazioan (eta beraz, oinarritzko arautegia delako Elkarte Autonomoetan ere), sistema honen bidez bakarrik bete ahal izango direla ondoko postuok:

- Zuzendariorde orokorrak (ohar adierazgarri bat: administrazio Zentralak gora eraman du hauen existentzia Baskongadetan arautzen zuen dekretua).

- Erregio zein Probintzi ordezkariak eta zuzendariak.
- Goi karguen idazkaritzak.
- Izaera zuzentzaile edo erantzunkizun bereziko batzuk.

Bistan denez, beti bezala, salbuespena bihurtuko da orain ere arau orokor.

Lehen ere aztertzen zen denboran zehar Madrilek Hego Euskadira bideratuz erabili duen kontrol politikoa, alde aurretik pentsaturiko desberdintasun eta guzti: "Foru Amejoramentua - Estatutu Baskongadoa", -LFPV-; baina funtsean arauaketa zein Estatutua (alor biak) loturik ditu eta oso ondo loturik gainera. Aztertzeko dugu geratzen denaren kontrol politikoa, hau da, gestio era, kontrol eraketa, e.a.-ena; baina barrutik. Hau lortzeko "konfidantzako postuak" izeneko figura asmatu da. Konfidantzako postuok itxuraz aholkularitza eta plangintza zereginak betetzeko sortu dira. Hautapen libre formularen bidez egiten dira; beste era batera -eta argiago- esanik Administrazio ezberdinetan eta une diferenteetan agintean daudenek hatzamarrez izendatzen dituzte eta izendatzailearen alderdikide izanik bere interesak defendatzeko ekarriak izaten dira, berezko buruei marro eginaz gainetik ibiltzeko. Eta hau guzti hau guttiena da, zeren garden hitz eginik, honoko paper hau betetzeko sortuak bait dira: Beraien berezko buru direnen gainbegiraketa egiteko eta momentu hartan boterean dagoenak agintzen duen politikaren norabidea ezartzeko eta kontrolatzeko. Beraz bi kontrol mota gainezartzen dira: bata Estatuak Hego Euskadiri egiten diona: eta, bestea, Administrazioetan agintzen duen bertan daudenei egiten diona; azken kontrol mota hau ez da zertan beti derrigorrez txarra izan behar, nahiz eta gaurregun eta gestioan herri-kontrol zuzenik ez duten Administrazioetan onartezina den; eta berdin izango litzateke onartezina kapazitate tekniko nahikoaren jabe direla demostratzen ez duten Administrazioetan ere.

IV.- FUNTZIONAL ETA LAN ERREGIMENAREN ARTEKO EZBERDINTASUNAK

Aurrerago sakonduko dugu gehiago lege proiektuaren atalik inportanteenetatik abiatuz: baina, hala ere, egoki iruditzen zaigu EFPL-rekin (Euskal Funtzionalgo Publikoaren Legea, alegia) ditugun dibergentzien ardatz nagusiak oraintxe agertzeari. Eta hau egin baino lehenago ondoko laburpen-lauki honekin adierazi nahi dugu funtzionariaren figura eta langile arruntaren figuraren artean dauden ezberdintasunak, alde batera utziz abagadunearen analisisa eginkeran esaten genuena.

FUNTZIONARIAK

Sindikalak

- Pertsonalaren Juntak: Negoziaketa ahalmen errealik ez. Kontsulta.
- Sindikalismo zentraldua, hala Estatu mailan nola elkarte Autonomo mailan. Negoziaketa goitik bultzatzen da: Mahai orokor eta Sektoreko mahaietatik. Hauteskunde Sindikaletan hautatuekin ez dago harreman zuzenik. Zentral errepresentagarrienak bakarrik hartzen dute parte, nahiz eta sektore hartan hautaturik eduki ez.

LANGILE ARRUNTAK

Sindikalak

- Enpresa batzordeak: Negoziaketa ahalmena. Negoziaketak zentroka.
- Greba eskubidea garaturik.
- Konbenioak.

- Greba eskubidea garatu gabe.
- Akordio eta itunak.

Juridikoa

- Bide kontentziosoa. Prozesu geldia eta garestia.
- Lege eta arau gehiegi, garatze ihar-dupide etengabea eta beti erdizkako erreformak planteatuz.

Ordainak

- Oinarrizko soldata eta C.D. delakoa tinkoak, C.D. delako hori guttiago.
- Gainerako osagarriak morronkeria eta salakeriaren ordainez edo administrazio zein buruen erizpide eta borondateari lotuta.
- Estatuko Presupostu Orokorren legeak arautzen du funtzionalgoaren soldata igoera.

Administrazio Karrera. Gorakadak

- Sarrera, teoriar behintzat, formula objektiboetan oinarrituta (meritu eta gaitasunean).

Sarbideak

- Oposaketa, Lehiaketa-Oposaketa, Lehiaketa. Ordena honetan.

Egonkortasun bermagarriak

- Egonkortasuna bizitza osorako bermaturik.
- Disziplina espedientearen bidez. Kaleratu guttitan.

Segurantzaren erregimenak. Medikuntza laguntzak eta Pasiboak

- Medikuntza eta osasun laguntzak, klinika pribatuak eta sendagile pribatuak.
- Mutua mordo handi bat eta maila

Juridikoa

- Magistratura, bizkorrago, errazago eta merkeago.
- Langileriaren estatutua, Lan-ordenantzak eta komenioak.

Ordainak

- Oinarrizko soldata gehi osagarriak
- Presupostu Orokorren legea, erreferentzi polotzat soilik, eta Abagadunek erabakitzen du goitik ala behetik egotea. Errekurtsoak ez du balio.

Gorakadak

- Promozio eta Mugikortasunerako aukera gutti.

Sarbideak

- Lehiaketa, Lehiaketa-Oposaketa, Oposaketa. Ordena honetan

Egonkortasun bermagarriak

- Bermagarririk ez. Kaleratze librea.

Segurantzaren erregimenak. Medikuntza laguntzak eta Pasiboak

- Aseguru Sozial erregimena maila guztietan.

desberdinetakoek; batzuk Estatu zein Elkartu Autonomo mailakoak eta bestetzuk Pentziotza mailakoak: Elkarkidetza eta abar.

- Norbaitzuk aseguru sozialean sartzeko aukera.

- Gorputz eta talde egitura, titulazio errekerituari egokitu. Saillapen 5 talde.

- Administrazio postuetan erabiltzen da batez ere, eta baita, kontrola edo/eta aginpidea eskatzen duten hoietan.

- Eskulanak, lan eskua, mantenua, e.a.

Beste bornu juridiko-politiko batetan egongo bagina eta hiritarrek beste era batera kontrolaturiko administrazio-egituren jabe bagina, LAB-ek bultzatuko luke duda izpirik gabe, erregimen eta lan baldintza berdinen lorpena Administrazioaren zerbitzuan dauden langileentzat eta enpresa pribatu zein publikoetan lan egiten duten beste langile guztientzat, alde batera utziz zein izenez deitzen nahi zaien batzuei eta bestetzuei.

Testuinguru honetan gaurrengungo funtzionalgoa beste langilieriarekin parekatzeko lana eta kasta desberdinduak desagertzeko lana LAB-ek bultzatu behar du eta horrexek lortzera joan.

Baina aztertzen ari garen egitura erreal hauetan, hala Hego Euskadi mailan eta Estatu Espainiar mailan nola E.E.E.-ko (Europako Elkartu Ekonomikoa, alegia) herrietan, Administrazioaren zerbitzuak pribatu egiterako joera etengabea dago ematen; joera honen ostean indar politikoak daudela ukaezina da, zeren joera honek erakusten bait du administrazioaren aldetik dagoen erantzunkizunen uztea laguntza sozialen alorrean eta zerbitzuen kontrol zuzenaren galera. Beste era batera esanik, aldiko politikarien kide eta lagunak, kide eta lagunentzako enpresak sortzen ari direla administrazioaren lepotik.

Beraz, gauzak jarri diren moduan egonik, Administrazioetako nominak beste langilieriarekin parekatzeko egiten diren ezfortzuen etekina Boterearentzat dela argi dago, zeren zerbitzu hauek pribatu bihurtzea errazago egingo bait zaie langile arrunten taldeekin funtzionalgo petoarekin baino (erregulazioak, kaleratze libreak, e.a.)

Guzti hau dela eta dituen inplikazioengatik, arazo hau sakon eztabaidatu behar da, jarrera argi baten jabe izan gaitezen.

Zentzu honetan esanguratsua da Uztailaren 28-ko 88/23 legeak, zeinek 84/30 legea aldatzen duen, zaharrak arautzen ez zuen honako hau aurrikustea: lanpostu zerrendetan jarri behar dela zeintzu postu bete ditzaketen langile arruntek, alegia. Eta lan molde hain zabalak aipatzen ditu ezen langile talde handi batek erabil bait dezake bide hori

V.- ALTERNATIVA OROKORRA. L.A.B.

"Funtzio Publiko Baskongadoaren lege aurreproiektua"ren argitarapena ematen da esparrutzat Hego Euskadi zein Estatuaren alderdiak honako itun honetara iritsi diren unean: Hego Euskadin Gobernu Zentralari men egiten egotea ekarri duen ituna, alegia. PNV-PSOE-ren arteko paktuak, EA, EE-ren laguntza praktikoarekin traizio egiten die, berriz ere, Herri honen goinahiei, zatiketa onartu egiten du eta Madrili ematen dio oparitzat oraingoan administrazio Baskongadoa "bakarrik" (Hego Euskadiren zatiketari esker!)

Aurkeztu den testua ez da besterik Madrilek bata bestearen ostean eman dituen Lege eta Dekretuetan inposatu dizkigun arau eta erizpide guztien bilduma baino; baina lege batetan taiuturik. Ukatu egiten du, bada, Euskal Funtzio Publikoaren Lege jator baten edozein posibilitate; eta beste behin batetan birbaieztu du gaurregungo bornu juridiko-politiko honen aldaketaren premia, aldaketa horixe joz jasaten ari garen menpekotasun egoera honen derrigorrezko irteera bakartzat.

LAB aspaldidanik ari da administrazio bakar, publiko eta euskalduna erreibindikatzeko. Aurreproiektu honek uko biribila egiten dio eskabide honi.

Administrazio bat bakarra erreibindikatzeko dugu, abagadune honetan Hego Euskadiko lau herriedeak guttienez, —beraz Nafarroa barne delarik— biltzen dituen Administrazio mota, atzeritarren eskusartzerik gabekoa.

Administrazio bakarra denez, emango diren legeek bukatu beharko dute langile mota desberdinekin (funtzionario, langile) eskubide berdinak guztientzat eskaintzen dituen erregimen bat bakarra jarri; eskubide berdinak, esaterako sarbide, ordain, osasun-laguntza, eskubide pasibo, eskubide sindikal, e.a.-etan.

LAB administrazio publikoaren alde ere ari da burrukatzen, zerbitzuen pribatuegitea galerazten duen administrazio mota, gaurko aurreproiektuak biltzen ez duen zera. Gardena izango dena eta Herri erakundearen parte hartzea eta kontrola bideratzeko mekanismo egokiak dituen. Herriarena eta Herriarentzat izango den Administrazio publikoa eta ez Administrazio burukratatu eta betikoen zerbitzuen dagoena.

Eta Administrazio euskalduna eskatzen dugu, Euskadi delako gure aberria eta euskara gure hizkuntza. Lege hau atzerakada bat da administrazioak berak proposatu zuen aurreko aurreproiektuarekin gonbaratuz ere, euskara baztertze hutsera daramalako. Horrexegatik, inoiz baino bortitzago eskatzen dugu euskara hartzeko administrazioaren hizkuntza ofizial eta erabilitzat.

Orobat eskatzen dugu baliabideen banaketa justuagoa. Soldata haizemaile hestuagoa dakarzkiguna, guztiontzat ordain sistema berdina duena, laguntza mota desberdinak ezabatzen dituen (sendagileak, osasuneko zerbitzuak, eskubide pasiboak,...) Euskal Aseguru Soziala jartzen diguna. Behinbehineko sistemaren ezabaketa administratibotik, bermagarriak eta gardentasuna sarbide sistemetan, "entxufismoa" delakoa ezintzen duen sarbide sistema, partehartze eta kontrol sindikalak direla bide. Eskubide sindikal garden eta homogeenok, Negozia eta gaitasuna, Estatuko presupositu Orokorren legearen kortsea jartzeari ez borobila, Greba eskubidea, e.a.

Puntu guzti hauek garatuko ditugu, orokorki baino ez bada ere, segidan.

VI.- ESKUBIDE SINDIKAL ETA NEGOZIAZIO-ESKUBIDEAK

87/9 legeak biltzen dituen eskubide sindikaletan oinarritzen da. Administrazio Publikoaren zerbitzuko pertsonalaren parte hartze eta lan baldintzen zehaztapen eta ordezkatzeko organoen lege honek ukitzen dituen zerik nabarmenenak honako hauek dira:

Era bateko bereizketa pertsonal-junten eta erakunde sindikaletako ordezkari sindikalen artean.

Organoon kompetentzi eza kontsulta funtzioak soilik emanik.

“Negoziaketa eta Enplegu politikaren jarraipenerako kompetentziak” sindikatuei ematen die, pertsonal-junten eta Ordezkari Sindikalen kaltetan.

Esandakoaren ondorioa da iharduera errebindikatiboko eskubide eskasak beraiek ere Erakunde Sindikalen esku daudela, Zuzenbide Publikoko esparruan mugitzen diren pertsona juridiko diren heinean; eta ez daude pertsonal-junta osatzen duten funtzionarikideengan, hauen gestioa kontrolerazagoa delako beste kideentzat hurbiltasunagatik baino ez bada ere.

Iharduera Sindikaleko ardatzak sail, zerbitzu edo lantokia baino goragoko esparruetan erabakitzen dira kontsentsuz; beraz, beheko esparruetan egin behar den iharduera sindikala “altuera”-tan egin diren “paktu” eta akordioek bideraturik eta oztopaturik dago.

Eta grabeena da administrazioa mamiz eta zentsu orokorrean husten ari dela aipatu legean agertzeko baino ez bada ere batu guttienez egiten diren eskubideak.

Legea promulgatu zenetik bertatik ari dira Administrazio desberdinak Erakunde Sindikalekin alde zuzeneko negoziatu behar dituzten gaiei buruz legez erabakitakoari jaramonik ez egiten.

Sindikatu errepresentagarriaren figura horrek zuzenbide laboralaren eremura ekarri dituen baino ondorio grabeagoak dakartzki hona, bertako egoera dela kausa, zeren, errepresentagarriago delako, ordezkariak ere ez duen barrutietan negoziatu bait dezake eta, beraz, bere jokabidearekin pozik ez dauden langileen zigor botua ere ez duelako hartuko.

Esan daiteke bere burua itxurazko koerentziaz hornitzeko egin duela arautegi guztia; baina errealitatean, lan munduan gobernuaren benetako eranskin diren zentral Sindikalak saritzeko egina da; eta honekin beti lortzen du bere planteamentuentzat mesedegarri den koerlazio mota.

87/9 Legea aztertu dugu eta orain azter dezagun EFPL-k puntu honi buruz biltzen duena. Funtzio Publikoaren euskal kontseilua bi helburu nagusi betetzera deitua da.

1.- Sindikatuen indarraren arabera negoziatzeko ahalmena eduki dezakeen ezein mahai orokor zein sektorekoren ordezkariak.

2.- Berarengana desbideratzea ekintza sindikal osoa; lortuz, parekidetasun eta kontsulta izaeragatik administrazioaren gordeleku izatea, enplegu publikoaren eskaintzari buruzko debate osoa berarenganatzea; halaber, sarbide sistemak, eragintza, V.P. delakoaren lana, euskalduntze programak, ordain eta funtzio homologazio sistemak, e.a., IVAP delakoa ere foro berdinetik ateratzen delarik nahiz eta isladarik ere agertzen ez den.

Bestalde harrigarria da Finantza eta Ogasun Sail burua izatea pertsonalaren gastuei buruzko

norabideak seinatzen dituena, gainera premia eta egiazko negoziaketaren azterketa zehatz batetan baino gehiago jarrera ekonomizista batetan oinarrituz.

Lege Estatalarekin gonbaratuz, ikusten da hark batzen duen "liberatu Sindikalaren" eskubideetarikoa bat -lanpostua gordetzearena, alegia- EFPL-k ez duela batzen.

Eskubide sindikal alorrean Funtzio Publiko alternatiboak bete beharko lituzkeen betebeharrak

- Eskubide Sindikalen erregimen bateratua, lan-pertsonal zein funtzionariarentzat berdina; honek ekarriko luke errepresentazio organo bakarrak egotea Administrazio publikoen zerbitzuan lan egiten duten guztientzat.
- Hego Euskadiko botere publikoek ahalmena izatea arautzeko Hego Euskadiko Administrazio Publikoer zerbitzua egiten dien funtzionarien errepresentazio eskubideak eta eskubide sindikalak. Hau gaurko abagadunean.
- Errepresentazio organoak; baina eskubide errealekin.
- Demokratikoki aukeratutako errepresentazio organoak negoziaketa ahalmen errealean jabe direla.
- Langileek zuzenean aukeratu ez dituztenei, negoziaketa ahalmenik ez.
- Prozesu disziplinarietan parte hartze zuzena.

Beharrezkoa da agerian jartzea Urriaren 6-ko 87/304 Eusko Gobernuaren dekretua, non ukitzen diren Errepresentazio Organoak, hauteskunde prozesuaren erregulazioa eta Elkarte Autonomo Baskongadoko Administrazio Publikoen zerbitzuko pertsonalaren parte hartze eta lan baldintzen zehaztapena, zera azaltzen hasten da: 87/6 legean funtzionari publiko guztien estatut-erregimenaren oinarritzat jartzen dena, hartuko dela abiapuntutzat; bada, praktikan bere kopia bat baino ez den hau konstituzio Auzitegira eramanik dago hauteskunde prozesuaren erregulazioa dela-eta, zeren Administrazio Zentralak dudak omen ditu horretarako kompetentziarik duen ala ezari buruz.

VII- SARBIDE SISTEMAK ETA PERTSONAL HAUTAPENA

Behin eta berriz aztertu dugu Estatuko LFP delakoan arautzen diren Koordenada eta Printzipioek nola baldintzatzen duten EFPL.

Beharrezkoa da, bada, 84/30 legea aztertzea, baina kontutan izanik Uztailaren 28-ko 88/23 legeak egiten dizkion aldaketak zeren lege honek erabaki dituen erreformak moldatu beharko bait dira EFPL-an.

84/30 legearen printzipio gidatzaileen bilakaera.

Lege aldaketa honen aurretik, Administrazioak printzipio hau zeukan gidaritzat: Administrazioaren enplegatuek erregimen estatutarikoak izango dira. 1986-ko apirilko Lege-Dekretu erregimena Erregimen Lokalak erabaki zuen salbuespen moduan eta maisu-maistra, kargudun, ofiziale, urgazle eta beste edozein ofiziotako behargin-lanetarako erregimen laboralaren bidez kontratatzeak aukera. Hauxe zen erregimen mota horretan kontratatzeak legezko posibilitate bakarra, legegileak berak salbaespentzat jotzen zuen posibilitatea. Honek berronetsi egiten du Administrazioaren kontratazioa Administrazio Zuzenbideari jarrai egin behar dela.

Aipatu dugu 88/23 legetik sorturiko joera zein den. Gizarte kapitalistaren bilakaerak berak eskatzen dio egitura berri hau Administrazioari. Gainera aztertuz joerok izango dituen bilakaera mota izango dela ematen du:

Funtzionamenduari dagokionez, deskontzentrazio-erizpidea; hau da: gizartea kontrolatu, baina ez gestioaren arriskua bere gain hartuta, botereak ongi loturik dituen beste kontrol mekanismo batzuen bidez baino.

Honek hau darama bere baitan:

a) Zerbitzuen pribatu egitea

b) Administrazioko zerrenden urripena; eta beraz, Funtzionari "kastak" bizirik irautea, gaur-regungo kopurua baino murrizagoan; eta aldamenen noizbehinkako langile kopuru handi bat; gehi, gainera, arestian esan bezala zerbitzu asko enpresa pribatuen bidez ematea.

- "Kasta ezberdinduen" euspenari, Ez!

- Administrazioko pertsonal guztiaren langiletzeari bultzada; baina hala kontrola nola Administrazioak gestioa bere gain hartuko duela bermatuko duen boron datetan.

PERTSONAL HAUTAPENA

Funtzio Publikora sartzeko hiru modu daude.

Oposaketa: Gaikuntza froga teoriko edo/eta praktikoa bat edo gehiago egitean datza.

Lehiaketa: Funtzionarigurakoek kreditaturik ekarritako merituen kalifikazioa, erabakitako baremoekin ados egina.

Lehiaketa-Oposaketa: Aurreko bi moduak baten. Lehiaketa ezingo da inoiz baloratu puntuazioaren %50-etik gora.

Lege proiektuaren arabera funtzionarietarako sarbide modurik erabiliena oposaketa da eta funtzioen izaerak eskatuz Lehiaketa-Oposaketa ere erabiltzen da. Langile arruntek ere sarbide modu berdina dituzte; baina hemen ez zaio aterik uzten aparteko lehiaketari ere. Hala ere Administrazioari ez zaio atsegin sarbide-modu erabilien hori, arrazoi subjektiboetan funtsatuz eta behin baino sarriago pertsona jakin batzuegan pentsatuz. Eta honela salbuespena erraz bihurtu daiteke arau.

Gure eritzia da lehiaketa modua bakarrik erabil daitekeela lanpostuak eskatzen dituen funtzioak betetzeko gaitasun berezirik behar ez denean eta gainera lehiakideen premia eta egoera ekonomiko eta sozialei puntuazio handia ematen bazaie baremoan.

Lehiaketa-Oposaketa modua. Administrazioak honako joera hau du: lehiaketa alorrean esperientzia profesionala asko baliatzea, alegia; eta, ondorioz, lan egiteko aukerarik izan ez dutenei edo langabezia daukenei asko murrizten zaizkie posibilitateak, nahiz eta oposaketa alorrean gaitasun handia erakutsi.

Oposaketa sistema izan daiteke objektiboena, baldin eta frogetan gardentasuna bermatuko balitz ("zer zaila, benetan"), gaitasuna erakusten delako.

Beste boron desberdin batetan, proposa genezake oposaketa sistema behe mailako lanpostuetarako eta merituen barruko-lehiaketa sistema goi-mailetako lanpostuetarako. baina beti erizpide objektiboak eta kontrol sindikala erabiliz

EFPL-ren proiektuan, Estatukoan ez bezala, 18 hiletara luzatzen da praktikaldiaren epea, epealdi nahiko luzea Administrazioa jabetzeko funtzionari berria ea eskuin ala ezkerreko oinarekin dabilen herrenka; eta, beraz, finko egin ala ez. Bitartean, gainera, lan-esku merkea du 18 hileko une luze horretan, zeren bakarrik jasoko bait ditu oinarritzko soldata eta guttienezko osagarria.

LAN POSTUEN HORNIDURA

88/23 legeak aldatu du, honela geratuz:

Lehiaketa da lanpostua hornitzeko ohizko Sistema. Erabakitzen du, baita ere, izendatze librearen sistema; baina modu honi egin diogu lehenago bere kritika.

BARRUKO GORABIDEA

Lehiaketa eta izendatze libre Sistemez egiten da. Administrazioeko eskala eta gorputzen batasunerako joera ikusten da, eskala eta gorputz jakin batzuen ezabatzearen bidea erabiliz eta planteatuz sistema osoa lanpostuen katalogoei jarrai.

GORABIDE ETA HORNIDUDARI BURUZ. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAN ONDORIOAK.

Ezin dezakegu aipatu gabe utz, Administrazio Zentrala nola ari den funtzionarien postu aldaketa oso inportantea egiten, lanpostu hornidura sistemaren bidez Elkarte Autonomoak funtzionari tranferituz josiz. Eta hauek lehiaketa orduan aukera hobekak dituzte normalean (aintzinagotasuna, esperientzia, e.a...)

Bi hautapen formak aztertuz, atera daiteke Administrazioetan ematen ari den funtzionarien postualdaketa eta igoera motak sarri lanpostu askoren kalera irteteari galga jartzen diola batez ere eskulanpostuei, zer loturik dagoen lehen aztertutako zerbitzuen pribatu egiterako joerarekin. Pertsonalaren sarbide eta hautapenei buruzko apartatu honetan nabarian jar daitezke, testuinguru orokorretik kanpo geratzen direlako, EFPL-ren aurreproiektuan batzen diren bitarteko erabaki batzuk (disposiciones Transitorias, delakoak), hauexek izango direlako, dudarik gabe, lege honi buruz emango den debatean eztabaidagai nagusienetarik bat.

Guzti honen iturria honako honetan dago: administrazioan egin diren "mota guztietako kontratuak" funtsezko irregulartasun batekin egitean, alegia; bereziki Gobernu Baskongadoaren mende dagoen personalaren kontratuetan, non anabasa nahasi-mahasia egon den batez ere bi arrazoigatik:

1^a Bere pertsonala arautzeko kompetentzi faltagatik.

2^a Lehengo abagadunean EAJ-ren eta oraingoan PNV-PSOE-ren asmoagatik zer honetarako: beraien politikakide diren enplegatuak "sarri askotan" atzeko bidetik sartzeko asmoagatik, alegia.

Puntu hau aztertzean topo egiten dugun arazo nagusia hau da: erabili dituzten kontratazio formen aniztasuna.

a) Kasu batzutan esan daiteke oposaketa jatorren bidez kontratu direla, gutti gora behera beste Administrazioetan egiten den antzera.

b) Beste batzutan batzoki eta herriko etxeen bide zuzena erabiliz.

c) Beraz, gaurregun ezina da bereiztea talde bat bestetik, Eusko Gobernuak deliberoz nahastu dituelako inork ez dezan posibilitaterik eduki argitzeko nor sartu den modu batera eta nor bestera.

Gure aukera sindikala zein den argi dago: lanpostuaren egonkortasunaren alde burukatzea. Egoera argitu ondoren eta kontutan hartuz Gobernu Baskongadoaren betiko promesa honako hau izan dela: enplegatu guztiei egongortasuna bermatzea, alegia, arazo honetan geure posizioa hartu beharra dugu.

Eusko Gobernuak talde hauentzat proposatzen dituen aterabideak:

1.- Lankidego iraunkorraren Administrazio hitzarmeneko pertsonalarentzat: meritu lehiaketa. Eta funtzionari edo langile finkoren egoera lortuko du bere lanpostuaren sailkapenari dagokion izaerari jarrai.

Itxurak alde batera utziz, proiektuak erabiltzen duen hitza honako hau da: "ahalko du", "dezake", "daiteke". Hitz hauek ez diote finkotasunari bermagarririk ematen eta, beraz, "kide" ez diren langileak kalera daitezke.

A eta B taldekoak talde bereko beste gorputz batera hel daitezke titulazioa izanez gero eta balego betetzeko posturik. Aukera hau behin bakarrik izango du jabego-hartu eta lehenengo hiru urteetan

2. Behin-behineko Administrazio kontratatuek eta ordezkoez lor dezakete finkoen egoera lehiaketa-oposaketaren ildotik baldin eta lehiaketa fasean puntuazio handienaren %45 behintzat aterako balu. Balorapen hau Enpleguaren lehenengo hiru eskaintza publikoetan egingo da. Lanpostuen bermagarriari buruz goian esandako guztia izan behar dugu kontutan.

3. Pertsonal laboral finkoak, administrazio-asignazioko postuak betetzen dituenak alegia, lor dezake funtzionari izaera postuen onespina hartu eta sei hile geroago oposaketa mugatuaren ildotik eta deialdi bakar baten bitartez. Hemen merituak baloratuko dira batez ere, baina beharrezkotzat ematen diren frogak alde batera utzi gabe. Gauza berdina gertatuko da laboral moduan sailkatuak dauden lan postuak betetzen dituzten funtzionarioekin ere, azken mailaraino hel daitezkeelako.

Hala egoera honek nola gobernu Baskongadoaren ustezko asmoak, -betikoei laguntza ematea- alegia, zein funtzionari postua lortzeko orduan eman ohi den zatiketak -aurreporiektu honek onartu egiten duena- bitarteko funtzionari, noizbehinkako eta transferituen artean, ez du inolako defentsarik. Eta erreflexionarazi behar digu eta gaurrengungo kontratatu guztientzat tratamendu berdina eskarazi, egonkortasuna exigituz Administrazioko pertsonal guztiarentzat.

Oharra: Debateak gehiago sakontzearen premia du.

Kokolo ez gaitzaten harrapa, zeraren berri ematen dizuegu: elkarte Autonomo Valentziarrean lanposturik gabe geratu zirela lanean zeudenen %25.a nahiz eta legearen testua hemengoaren oso berdintsua izan.

Garrantzia du, baita ere, azpimarratzeak nahiz eta EAJ-k deklaratu oso zaila dela lanpostuak orain dituzten guztiei bermatzea Administrazio zentralarekin dituzten aurkaketen erruz, egia soila hau dela: Andalusiako elkarte Autonomoak, PSOE-ren feudo ukaezinak, berak egindako funtzio Publikoaren legea aldatu egin duela eta honako erabaki hau hartu Urriaren 17-ko 1988/6 legearen bitartez, bere zerbitzuak han prestatzen ari den edonork edo prestatu dituen edonork funtzionari izaera automatikoki lortzen duela. Honek irakurketa politiko argia du.

VIII.—ORDAIN KONTZEPTUAK

Azpmarratu behar da berriz ere alor honetan dagoen diferentzia funtzionari eta langile arrunten artean; eta batzuen eta bestetzuen arteko ezberdintasuna argi mantentzen dela. Langile arrunten taldeari buruz esan Estatuko Presupostu Orokorren legeari zuzenean loturik egon ez arren, ez-eta Negoziaketa mahai orokor edo/eta sektorekoei, praktikan menpekotasun handia ematen dela; bestalde ordain-kontzeptuak bi dira, Oinarrizko soldata eta Osagarriak. LAB-ek burrukan egin behar du bi taldeek ordain sistema berdina izan dezaten.

Funtzionarioen ordain kontzeptuen azterketa, korapilotsua delako, jarraian ukituko dugu. Aurretik esan Estatuko P.G. delako legeak eta 84/30 legeak izendatzen dituztela ordainketei buruzko ardatz nagusiak eta, beraz, EFPL-k bete besterik ezin dituela egin. Gobernadore zibilek dute guzti hau bete dadineko ardura. Oso hurbil daukagu ARCEPAFE-ren inpugnaketak eta geroko etenaldi autoa; beraz, ez dago gehiago esan beharrik.

Gaur PSOE-EA-EAJ-EE-k "homologazioa behetik" planteamenduaren aldeko aukera egin dute eta, baita ere, langileengandik urruti dauden esparruetan gauzatu dadin negoziaketa. Hau dela eta, beraien ikuspuntuetara bateratzeko politikan guztiak ados egotea eta baita ere Pertsonal batzorde eta juntei negoziaketa ahalmena kentzean.

Ordain kontzeptu desberdinak jartzen dira; hauek hain zuzen ere:

- a) Oinarrizko ordainak, titulazio taldeari loturik.
- b) Helburu-osagarria, 30 maila. Lanpostua "erantzunkizuna", e.a... dela eta. Eusko Gobernua: 8. mailatik 24.era. Beste guztia kargu altuei mesedeak ordaintzeko, dudarik gabe. Bereizkeriak. Balioztapen Subjektibozko ihardupidea.
- c) Osagarri berezia, zailtasun berezia dela-eta, eta, baita, ardura, bateraezintasun, erantzunkizun, arriskugarritasun, e.a. dela-eta.
- d) Ekoizkortasun osagarria, interes berezia, errendimendua, e.a... nagusiak erabakitzen ditu.
- e) Sariak, ordu extrak, dietak, e.a....

LAB alokairu-haizemailea estutzearen alde dago; Administrazioan gehiegi zabaldu da alokairu-haizemailea, 1-etik 7-ra edo 1-etik 8-ra; gainera legeak zabalik uzten dio atea haizemaile amaigabeari (ez dago oztoporik)

Legeak alokairu-egitura bat jartzen du, non bi kontzeptu finkoak diren funtzionari guztientzat (soldata, hirurtekoa eta norako osagarria) eta hiru aldakorrak, administrazio eta nagusien esku geratzen direnak (osagarri espezifikoa, emankortasuna eta sari osagarriak).

Gainera toperik ez dagoenez, eta administrazio Zentralean gertatu dena abiapuntutzat hartuz, hiru osagarri aldakor hoiak finkoak baino zenbait aldiz handiagoak izan daitezke. Hau da: lan efektiboa kontutan izanik jarritako alokairuak izan beharrean, morronkeria eta salakeriaren ordain sari diren soldata bihurtzen dira.

Oinarrizko soldatak bost dira (talde bakoitzeko bat); mailak hogeita hamar (30). Mailak zatitzen baditugu talde bakoitzeko posibilitateekin 76 ordainketa mota desberdin ateratzen zaizkigu. Estatuko Administrazioak dituen emankortasun osagarriak 150 dira. Elkarte Autonomo Baskongadoan Estatuko berdinak erabiliko balira orduan 11.400 pagamendu mota desberdin izango lirateke (76 X150). Honi gehitzen badiogu nagusi bakoitzak "interesa" erakusten duten bere funtzionarietara hileroko gehitzen dien emankortasun osagarria milaka ordainketa desberdinetarako posibilitatea ematen du. Eta oraindino ez dugu hitzik egin eskupekoei buruz.

ONDORIOAK.

Pagamendu sistema guztia alde batetik nagusi batzuei soldata jasotzeko asmatua da eta bestetik langileen artean soldata berdina jasotzen duten bi suerta ez daitezten eta honela zatiketa egoera sortzeko.

LANPOSTUEN BALIOSTAPENA.

30 mailen asignazioa bezala hau ere erabiltzen ari dira ahal denik eta gehien harrapatzeko. Balioespen askok bakarrik balio izan du langileen zatiketa helburutzat duten txakurrandi batzuk banatzeko eta bidegabekeriak sendatzeko. Keke asko eta indio guttiko organigramak puzteko, entxufismoa bizkortzeko. Eta, ostera, ezin da inoiz burutu lan banaketa on bat, ez eta lanpostu bakoitzeko funtzioak zein diren argi uztea ere.

LANPOSTUEN BALIOSPENERAKO (LPB) EMAN BEHARREKO PAUSUAK LAB-en Ikuspuntua.

- a) Nomina Organikoa lortu. Sailen egituraren erizpide objektiboak. Pertsonal junten aginduzko txostena Euskal Herriko boletin ofizialean argitaratzea.
- b) Funtzionalarekin gonbaratu eta anomaliez jabetu, konpontzeko eskaria gehituz.
- c) Sar daitezela lanpostu guztiak LPB-n.
- d) Organigrama azter edo berregin dadila.
- e) Aurrekontu partida finka dadila.
- f) Talde-lana, errotakortasuna eta zuzendaritza bilduak defendatu.
- g) Lanpostu bakoitzeko funtzioak argi eta lan banaketa on bat egon dadila.
- h) Herriari zerbitzu on bat ematea lortu.

Erizpide honen argipean ez litzateke izan behar zaila LPB on bat egitea; baina kontutan izanik beti, Administrazioek zerbitzu publiko on bat eman behar dutela—ona dena geure ikuspuntutik, ez beste batenetik—, eta, kontutan izanik baita ere administratuak direla ordaintzaile.

DEDIKAZIO SOIL OSOA

Bakarrik Erakunde bakar batzuetako kargu altuek izan ohi dute dedikazio soil. Oharra: Administrazioan ari gara, ez Irakaskuntzan. LAB bezala defendagarri litzateke mundu guztiari aplikatzea slogan hau: langile bat, lanpostu bat. Politikari batzuk esaten dute, erizpide hau aplikatuko balitz, jente gaituak enpresa pribatura egingo lukeela ihes, soldata hobe jasotzen delako. Hau burutazio hutsa da. Beste hau, ostera, oso argi dago: hau da profesional "gaitu" askok Administrazioko bere lanpostua erabiltzen duela bere lan pribatua piztu eta indartzeko.

1. ANEXOIA. DEDIKAZIO SOILARI BURUZ.

Behe mailetako taldeetan kasu guztiz paradoxikoak ematen dira; adibidez Gipuzkoako Diputazioko suhiltzaileen artean. Hauei hilean 12-13 mila pezetako dedikazio soil ezartzen zaie eta, gero, lanpostutik zintzilik edukitzen dituzte atsedenaldira osoan, aisi-tarteetan nonora joatea ezina bihurtuz, zeren 24 orduetan lanera joateko prest egoten behartzen bait dituzte eta, beraz, ordu extrak eskukadaka eta kontrolrik gabe atera beharraz gain "nominak izozturik" edukitzearen ondorioa jasan behar dute.

JARRERA HARTZEKO ORDUAN OSO KONTUTAN IZATEKO ZERA.

Bateraezintasun legea.

Lege honek bateraezintasunarena baino gehiago dirudi bateragarritasun legea. Hemen guztia da bateragarri edo, behintzat, erraz kamufflagarri. Administrazioan ezin daiteke jaso bi soldata. Sendagileekin zertxobait sartzeari nahi zuelako muzina egin zuen behin PSOEek; baina berehala etsi zuen.

EAJ saiatu ere ez zen egin bere garaian aurretik zetorren ustelkaria hura garbitzen. Eta, beraz Administrazioak lehen zegoen bezain usteldurik eta burokrataturik segitzen du.

LAB-en ustez, batera ezintasun lege jator batek beharko luke egon lotuta "dedikazio soila" erizpideari; hau da "langile bat, lanpostu bat" sloganaren esanahiari.

Konfidantzako postuak

Honetan dabilzan morroiak ordainketari buruzko testuinguru orokorretik kanpo geratzen dira.

IX.- FUNTZIONARIEN DISZIPLINA ERREGIMENA.

Kapitulu hau Estatuko 86/33-ko errege dekretuaren kopia da bete-betean. Bertan hutsegitetzat har daitezkeen egintzen zerrenda agertzen da, hiru taldetan sailkatzen direlarik.

- oso astunak
- astunak
- arinak

Pasadizotzat har daiteke; baina hutsegite astunen arteko lehenengoa hau da: "Funtzio Publikoan ari denak Konstituzioari edo Autonomi Estatutuari izan behar zaien fideltasun-betebeharrari uko egitea".

Ez dago zertan esan, Sindikatuek honetan duten eskubide bakarra, zera da: Zigorra emanda dagoenean, jadanik emanik dagoela jakitun jartzearena.

Disziplina erregimena ez betetzen aurrenak alor askotan nagusiak izatea da gauzarik arruntena, eta bereziki aginpide gehiegikerietan eta pertsonalaren bereizkerian; hala ere ez dago kefe nagusi hauen kontra espedienterik sartzeko erarik, ez-bada administrazioarekin aurrez aur dagoen baten-baten kontra eta beraz gaizki ikusia delako kefe ez den baten-baten kontra.

X.- ASEGURU SOZIALA ETA FUNTZIONARIEN MUTUALITATEAK

Aseguru Soziala ez da gizarte kapitalistak "bere borondate onez" eman digun zerbait, ez-eta bere funtzionamenduko elementu on bat. Langileriaren burruka luze eta nekosoaren ondorioa besterik ez da (oraindino akatsez beterik dagoen ondorioa, egia esan). Langileriak, bere ekonomi segurtasuna erasoz eta mehatxuz beterik egon delako, funtsezko beharritzantzat jarri du gizarteak -talde bezala- estali beharreko "Ekonomi Segurantzaren" lorpena (Aseguru Soziala, alegia).

Urteetan zehar funtzionari talde desberdinentzat sortuz joan den mutualitate haizemaileak gaurregun maila guztietako prestazio diferentendun mutualitate esberdin mordo baten aukera zabala eskaintzen digu, hala prestazio pasiboan alorrean nola sanitarioetan, beti bultzatuz hauetan klinika pribatuak eta medizina pribatua.

Azpimarratu beharra dago Mutualitate mota hau joan dela gehituz Administrazio diferenteetako funtzionari talde desberdinentzat soilki langabeziaren arazorik ez duten taldeentzat eta beraz honetara mugatzen da besterik gabe beraien helburua funtzionarioi osasun prestazioa eta pasiboak bermatzera alegia. Aseguru Sozialak bestera beste helburu askoren artean hauek ditu langileen

arteko desoreka soziala konpontzearena (lana dutenen eta ez dutenen arteko desoreka) eta langa-bezi-tasa erregulatzearena. Honexegatik, hain zuzen ere, nahi dute desagertarazi.

Esandako guzti honetatik, ondorio hau atera daiteke oker egoteko beldurrik gabe: Funtzionalgoarentzako mutiak ez solidariak eta korporatibistak direla.

Segurantzaren sozialari dagokionez hiru funtzionalgo talde daudela erantsiko dugu. Alde batetik "guttiengoa", talde moduan Aseguru Sozialeko erregimenean daudenak eta aukera egin dezaketenen taldea (edo lehengo egoerari eutsi edo Aseguru Sozialean sartu), eta bestetik "gehiengoa", lehen aipaturiko mutualitate ezberdinetako partelient izatera derrigorturik dauden taldea.

EFPL-k erabaki nahi du legea indarrean jarri ondoren administrazioan sartuko diren funtzionari berriak Aseguru Sozialeko erregimena onartzera behartzea eta legea indarrean jarri aurretik administrazioan lanean ari diren beste guztiak, ostera, testuinguru honetatik kanpo uztea, hau da Aseguru Sozialetik kanpo uztea, (beraz bakoitzaren lehengo Mutualitatekide izaten jarraitu beharra).

Hau, aurreproiektuak diona da; hala ere eta hetxoen bidetik abiatuz, Gobernu Baskongadoa bera ari da "elkarkidetzan" bultzatzen, diru publikoaz sostengatzen den Mutua pribatu bat, alegia; orainarte Araba eta Gipuzkoako Administrazio lokalean bereziki funtzionatu du; baina orain Bizkaiko Administrazio lokal eta foralera, eta gobernu Baskongadoko eta Sanitateko pertsonalera ere zabaldu nahi da. Eta honela kontra esana sakonagotu egiten da.

Gure Alternatiba, hemen ere, garbia da kasten ezabaketa eta funtzionalgoa beste langile guztiekin batera Aseguru Sozialeko erregimeneko kide izatera iristeko eskakizuna.

XI.- EUSKARA ADMINISTRAZIOAN

SARRERA

Euskal Herriaren etorkizunerako proiektu politikoaren barnean alorrik garrantzitsuenetarikoa hizkuntzarena dugu, eta azken helburua oso zehatza da: euskal lurralde guztietan euskara normaltasun osoz erabiltzea. Honek zera esan nahi du: Euskal Herriaren izaera sozial eta ofizial elebakar batetara heltzea, euskaldun indibidualak eleaniztunak izan arren.

KONSTITUZIOA ETA EUSKARA

Euskararen egoera lehendik larria bazen ere, konstituzio espainolak ezarritako muga legal hestuek areagotu egin dute egoera hori, euskeraren aldeko hizkuntz politika serio batek berehala inkonstituzionalitateaz topo egingo bait luke.

Besteak beste, hauek dira konstituzioak ezartzen dituen mugen ondorioak:

- Euskararen erabilpenaren benetako normaltasuna ezinezkoa bihurtzen da.
- Euskara ez du bihurtzen hizkuntza ofiziala Hego Euskal Herri osoan: Nafarroako egoera.

Gaztelaniari eskubide kolektiboak ematen dizkion une berean, euskarari, eta ez bere lurralde osoan, eskubide pertsonalak besterik ez dizkio eskeintzen

Gaztelania, konstituzio espainolaren 3.artikuluaren inposatu egiten zaigu, euskara gure herriaren borondate pertsonal mailan uzten den bitartean

- Lurraldetasunezko erizpideetan kokatutako hizkuntz politikak inkonstituzionaltzat jotzen dira.
- Erdaldunen eskubide pertsonalak, euskaldunen eskubide kolektiboen gainetik jartzen dira.
- Euskara hiltzorian egon arren, bi hizkuntzentzako tratamendu bera planteatzen da: elebitasun sozial parekatua.
- Azkenik, zera esan behar, Euskal Herriak 1978an konstituzio honi ezetzaeman arren, inposatu egin zaigula.

EUSKAL ADMINISTRAZIOA ETA EUSKARA

Epe luzera, helburua, Euskal Herri berbateratu eta independente baten Administrazio bakar eta euskalduna litzateke, baina lehen urrats moduan Hego Euskal Herriko Administrazio bakarra aldarrikatzen dugu. Administrazio euskalduna, noski, baina ez administrazio euskaldunei beraien eskubideak errespetatuz zerbitzuak euskaraz emateko baino gai ez dena, administrazio euskalduna esaten denean, bere zerbitzu eta lanak oso osoan euskaraz garatzen dituen esan nahi da, hau da, Administrazio langilego osoa euskalduna izatera heltzea.

AUTONOMI ELKARTEKO ADMINISTRAZIOA ETA EUSKERA

Hego Euskal Herriko lurraldeak, konstituzioaren inposizioz bi elkarte autonomiko ezberdinetan banaturik daudelarik, Baskongadetako Ekonomi Elkartearen egoera aztertuko dugu ondoren.

1982-ko Azaroaren 24-ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, hiritarrek dituzten hizkuntz eskubideak aitortzearen ondorioz, betebeharrak jakin batzuek ezartzen omen dizkio Administrazio Autonomikoari.

Lege honek jartzen dituen oinarriak garatuko dituen Dekretoa ez da 1986-ko Azaroaren 25-erarte aterako, (Azaroaren 25-eko 250/1986 Dekretoa, Autonomi Elkarteko Administrazioetan Euskararen erabilera arautuz).

Dekretu honetan, euskara eta gaztelania, biak hartzen dira hizkuntza ofizialtzat (1. artikuloa) eta gutxienezko helburuak besterik ez dira ezartzen, hau da, administrazio euskaldunen eskubidea bermatzeko, Administrazioa, lekuan lekuko biztanlego euskaldunaren kopuruaren arabera, zerbitzua euskaraz emateko gai izatea. Ez da inolako ere administrazio euskaldun batetarantz biderik jorratzen.

1987-ko Otsailean, Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak (HPI), "Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan Euskararen Normalkuntzarako Plangintza" izenburuaz, aipatutako Dekretotan ezartzen diren helburuak betetzeko egitasmoa euren duen, baina, ez da garatu zehazten diren epeetan, eta egia esan bi urte geroago ez da inolako emaitzarik ikusten.

Lege, araudi eta papera franko, baina denek konstituzioaren itzalpean Madrileko Oinarrizko Legeek uzten duten zirikitu hestutik pasatu behar, eta bide honetatik euskararen egoera gero eta beltzago administrazioan eta Euskal Herrian. Gasteizko gobernuko politikoez ez dute erakutsi administrazioa euskalduntzeko borondate argirik, eta beste alde batetik eskuak Madriletik lotuta dituzte.

Herri-Agintaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE), urteak daramatza administrazio langilegoaren euskalduntzea antolatzen, baina nolakoa izan da antolakuntza?. Eta emaitzak?. Gure ikuspuntutik behintzat, antolakuntza eskasa eta emaitzak eskasagoak.

FUNTZIO PUBLIKORAKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROA ETA EUSKARA

Zirriborroa, guztiz abstraktu eta zalantzagarrria da, ezer ez du argitzen ez zehazten eta ez zaio inondik ere administrazioa euskalduntzeko borondaterik ikusten.

Berriz ere, politikoek ez dute kontutan hartzen euskararen egoera larria, eta administrazioak euskararen bultzatzaile eta zabaltzaile izan beharrean, galga papera betetzen du.

AZKEN KONTSIDERAPEN ETA PROPOSAMENAK

Egoera ondo aztertuz eta aurrerago aipatu dugun guztia kontutan hartuz, zera ikusten dugu:

- Konstituzioak inposatzen duen bornu juridiko-politiko honetan ezinezkoa dela Euskal Administrazio Euskalduna, eta ezinezkoa dela baita Hego Euskal Herri euskaldun batetarantz lehen urratsak ematea ere.

- Gobernu Baskongado eta alderdi instituzionalisten aldetik, ez dagoela euskararen aldeko borondaterik.

- Ondorioz, Administrazioa, bultzatzaile izan beharrean, administrazioaren eta Euskal Herriaren euskalduntze prezesuaren oztopo eta galga bihurtzen dela.

- Instituzio publikoen euskarari buruzko gezurrezko diskurtso politiko triunfalistikak, euskara salbatuta dagoen irudi faltsu eta guztiz arriskutsua ematen duela.

- Administrazioaren aldetik plangintza orokorrik aurrera eraman ez bada ere, plangintza teknokratiko puntualen emaitzak oso eskasak izan direla.

- 250/1986 Dekretuaren ondorengo hizkuntz perfilen inguruko plangintza bideratuko duen bitarteko ekonomiko, tekniko, politiko eta legalak ezin ditzakeela gaur inork garantizatu.

Aurreko kontsiderapen hauen ondorioz, eta euskararen egoera hain larriaren aurrean, behin behineko eta premiazko eginbehar moduan zera proposatzen dugu:

- Administrazio guztietan (Udal, Diputazio eta Gobernu Autonomiko) departamentuz departamentu EUSKARA BATZORDEAK sortzea, langilegoaren partaidetza zuzen eta etengabeaz. Batzorde hauen esku egongo litzateke departamentuko euskalduntze plangintzaren antolakuntza eta prozesuaren kontrola, euskararen aldeko kanpainak,